



## **GEROA BAIri BABESA EMATEN DIOTEN HAUTETSIEN MANIFESTUA**

---

**Iruñea, 2011ko azaroak 12**

**LEHENENGOA.-** GEROA BAI koalizio bat da eta Zabaltzen elkarteaz (NaBaiko independente antolatuen elkarteaz), EAJ/PNV alderdiaz eta Atarrabia Taldea alderdiaz osatua dago. Gaur hemen bildu garenok argi adierazi nahi dugu funtsean, GEROA BAIren baitan daudela 2004ko hauteskunde orokorretarako NaBai sortu zen unean zeuden sentsibilitateak; garbi esaten dugu hori. NaBaik, hasieratik, bere baitan zekarren ideia integratzailearekin bat, GEROA BAI zabalik dago zeharkakotasunaren ardatzarekin eta aniztasunari datxekion aberastasunarekin bat egiten duen jendeari eta erakundeei; zabalik ere, lana eta balioak uztartzen dituen egitasmo politikoaren alde egiten dutenei. GEROA BAI, horrenbestez, alderdi politikoekin bat egiten duen jendearen sentimenduaren adierazpidea da, baina aldi berean, baita luzaroan abstentzioa aukeratu zuen jende aunitzen sentimenduaren adierazpidea ere, eta abstentziora lerratu ziren, talde politikoaren artean bakar batek ere haien espektatibei erantzuten ez zielako. GEROA BAI bada erantzuna eta alternatiba.

**BIGARRENA.-** GEROA BAIk lanabes eraginkorra izan nahi du, gure gizartera egiazko aldaketa ekartzeko; egiazko politika eginen duen lanabes baliagarria ere izan nahi du, gure gizartean ditugun arazoak konpontzeko, egun gizartea ekonomia-krisi itogarriak harrapatua baitago, eta ez dago beste alde batera begiratzerik. 2004an, 2007an, 2008an, bai eta 2011ko udaberrian ere, argi ikusi zen NaBai lanabesik onena izan dela egiazko Nafarroaren sektore garrantzitsu bat agertoki politikoan kokatzeko, sektore hura bizitza publikotik kanporatua baitzegoen. GEROA BAIk jarraipena emanen dio proiektu horri.

**HIRUGARRENA.-** GEROA BAIk, beraz, NaBai sorrarazi zuen espirituarekin bat datorren aukerabidea eskaintzen die nafar herritarrei azaroaren 20rako, hau da, elkartasunean oinarritutako gizarte anitz, ireki, elebidun, aurrerazale eta sozialaren alde egiteko borondatea; bere euskal nortasunaz, kulturaz eta hizkuntzaz harro dagoen Nafarroa; eskubide historikoak eta demokratikoak zaintzen eta zabaltzen ahalegintzen den Nafarroa; elkarren arteko errespetua eta ikuspen nahiz identitate desberdinak elkarrekin bizitzea ahalbidetuko dituen Nafarroa, frentismoa baztertuko duena, pentsamolde desberdineko jendea zokoratuko ez duena.

**LAUGARRENA.-** Diputatuen Kongresuak eta nafar herritarrek berek nafar nortasuna bestela adierazteko moldea hauteman dute Nafarroa Bairengan. Hori ukaezinezkoa da. Egun arte egindako lanari jarraipena eman nahi diogun heinean, argi eta garbi esaten dugu GEROA BAI gauza dela 2004an urratzen hasitako bideari jarraitzeko. GEROA BAIren bidez, Nafarroako abertzaleek eta euskaltzaleek berriz ere behar bezalako ahotsa izanen dute, oroz gain, Nafarroako herritar guztien interesen alde ekiteko, haien bozka edozein izanda ere.

**BOSTGARRENA.-** Hauteskunde orokorrei dagokienez, GEROA BAIk Madrilera eraman nahi du Nafarroan ezarrita dagoen gobernu-erregimenetik kanporatuak dauden nafarren ahotsa. Urteotako esperientziak erakutsi du Kongresuan esertoki bat izatea bitartekorik onena dela Nafarroako ahotsa entzuna izan dadin, aurreko 30 urtean entzuna izan ez den moduan; Kongresuko esertoki baten bidez, gainera, Nafarroako gizon-emakumeen interes orokorreko kontuak eramaten dira hango osoko bilkuretara eta batzordeetara. Arduragabekeria litzateke parte ez hartzea gure herrikideengan alde edo moldez eragina duten kontuak eztabaidatzen diren foroetan; dela Madrilgo Kongresuan dela beste edozein tokitan.

Bada, hau guztiarengatik eta beste arrazoi askorengatik, manifestu hau sinatzen dugun gizon eta emakumeok erabateko babesaren ematen diogu GEROA BAIri eta koalizio honen aldeko botoa eskatzen dugu

**Badugu geroa, bai**

**Sí tenemos futuro**